



## **ELGOIBARKO UDALERRIAN EUSKARA SUSTATZEKO JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO ORRIA**

### **DATUAK**

**Izen-abizenak:**

**Helbidea:**

**Herria:**

**PK:**

**Telefonoa:**

**Posta elektronikoa:**

**NAN edo IFK:**

Nire izenean, edo ..... zenbakidun NANA edo IFK dituen (kontuan izan pertsona fisikoa den), eta .....n bizi den.....ren izenean, honako hau

### **ADIERAZTEN DUT**

ondoren zehaztuko den jardueraren baterako diru-laguntza eskatu nahi dudala (egin gurutze bat dagokion lekuan):

- Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko diru-laguntzak
- Barnetegietan euskara ikasteko diru-laguntzak
- UEUk, EHUk edo Hik Hasi-k antolatutako ikastaroetarako diru-laguntzak
- Establezimenduetako publizitate errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntzak
- Elkarteen, denden, tabernen eta jatetxeen gestiorako euskara hutsezko aplikazio informatikoak instalatzeko diru-laguntzak
- Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko diru-laguntzak

Halaber, aditzera eman nahi dut Elgoibarko Udalerrian Euskara Sustatzeko Jardueretarako diru-laguntzak emateko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran onartutakoak, osorik ezagutu eta onartzen ditudala.

Bestalde, adierazten dut eskaera orri honetan jasotako datuak zuzenak direla.

Eskaera orri honetan jasotako datu pertsonalei dagokienez, berriz, honako hau adierazi nahi dut:

Bertan jasotako datuak nire baimenaz lortu direla, eta Udalak honako hau jakinarazi didala: datu horiek Datu Pertsonalak Babesteko azaroaren 13ko 15/1999 Legean ezarritakoaren arabera tratatu eta erabiliko direla.

Horrela bada, idatzi honen bidez honako hau

## **ESKATZEN DUT**

Eskatutako diru-laguntza ematea.

Hori dela-eta, ondoren zehaztutako agiriak eranstean ditut:

- NAN edo IFKren fotokopia. Eskatzailea pertsona juridikoa baldin bada, eraketa edo aldaketa eskritura, hala badagokio Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutakoa, eta identifikazio fiskalerako zenbakia aurkeztu beharko dira; ezar dakioken legediaren arabera, inskripzioa eskatzekoa bada. Inskripzioa eskatzeko beharrik ez badago, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: eskritura edo eraketa agiria, nahiz estatutuak edo fundazio egintza. Bertan, jarduera hori arautzen duten arauak jaso beharko dira. Bidezkoa bada, agiri horiek dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.
- Diru-laguntza ordaintzeko kontu zenbakia (20 digitu).
- Eskatzaileak duen bankuko titularitatea egiaztatuko duen agiria.
- Udalaz kanpoko diru-laguntzaren bat eskatu dudala eta diru-laguntzaren bat eskatzeko debekuan sartuta ez nagoela egiaztatzen duen zinpeko aitorpena (I. eranskina)
- Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Udalarekikoak betetzen dituela egiaztatuko duen agiria. (I. Eranskina)

Horretaz gain, diru-laguntza mota bakoitzari dagozkion agiriak eranstean dizkiot eskabideari:

### **Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko diru-laguntzak**

- Matrikularen kopia
- Euskaltegiak egindako ziurtagiria. Bertan honako gorabehera hauek zehaztu beharko dira: eskatzaileak ikastaroa bukatu eta gutxieneko aprobetxamendua izan duen ala ez, eta izandako asistentzia zenbatekoa izan den (ehunekotan).

### **Barnetegietan euskara ikasteko diru-laguntzak**

- Ikasle, langabetu, pentsiodun edo jubilatu izaera egiaztatuko duen agiriaren kopia
- Matrikularen kopia
- Barnetegiak egindako ziurtagiria, barnetegian aritu den ikasleak ikastaroa bukatu duela eta gutxieneko aprobetxamendua izan duela egiaztatuko duena.

### **UEUk, EHUK edo Hik Hasi-k antolatutako ikastaroetarako diru-laguntzak**

- Ikasle, langabetu, pentsiodun edo jubilatu izaera agiriaren kopia (eskatzailea zehaztutako kasuren batean baldin badago).
- Matrikularen kopia.
- Erakundeak egindako ziurtagiria, eskatzaileak ikastaroa egin duela egiaztatuko duena.

### **Establezimenduetako publizitate errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntzak**

- Establezimendua irekitzeko eta errotulua jartzeko baimenak, Elgoibarko Udalak emanak.
- Fakturaren originalak eta ordainketa agiriak

### **Elkarteen, denden, tabernen eta jatetxeen gestiorako euskara hutsezko aplikazio informatikoak instalatzeko diru-laguntzak**

- Eskatzaileak establezimenduren bateko titular badira, establezimendua irekitzeko baimena, Elgoibarko Udalak emana.
- Eskatzaileak elkarte gastronomikoak badira, elkartea dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Fakturaren originala eta ordainketa agiriak.

### **Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko diru-laguntzak**

#### Eskaera aurkezten den unean

- EAEko lantokietan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak araututakoaren arabera, euskara planak egin edota garatzeko, eskaera egiten den urte berean aurkeztutako aurrekontuaren fotokopia.

#### Diru-laguntza zuritzeko

- Egindako eta diruz lagundutako jardueren memoria
- Jatorrizko fakturak edo/eta faktura konpultsatuak, emandako diru-laguntzaren zenbateko osoarenak
- Diru-sarreraren eta gastuen gaineko balantzea
- Jasotako diru-laguntzak egiaztatzen dituzten agiriak, baldin eta eskabidea aurkezteko unean aurkeztu ez baditu

Horretaz gain, Udalak beharrezkoa irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei, eskabidean aditzera emandakoa egia dela egiaztatzeko.

Elgoibarren, .....(e)ko .....aren .....(e)an

Sinadura

## I. ERANSKINA

### ZINPEKO AITORPENA

#### Aitormena egiten duenaren datuak

- **Izen abizenak:**
- **NAN edo IFK:**
- **Helbidea:**
- **Telefonoa:**

Nire izenean, edo ..... IFK eta .....  
telefono zenbakia dituen, eta .....n  
bizi den .....ren izenean,

#### ZINPEAN HONAKO HAU AITORTZEN DUT

Elgoibarko Udalari eskatutakoaz aparte, honako beste diru-laguntza hau jaso edo eskatu dudala, eskabide orrian zehaztutako jarduera burutu ahal izateko.

- Eskaera zein erakunderi egin zaion
- Eskaera zein egoeratan dagoen
- Eskatutako diru kopurua
- Jasotako diru-laguntzaren zenbatekoa

Elgoibarko Udalari eskatutakoaz aparte, ez dudala beste diru-laguntzarik jaso edo eskatu, eskabide orrian zehaztutako jarduera burutu ahal izateko.

Ez nagoela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. atalek diru-laguntzak jasotzeko ezartzen dituen debeku kausaren batean ere sartuta. Eta era berean, zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Udalarekikoak betetzen ditudala.

Elgoibarren, .....(e)ko .....aren .....(e)an

Sinadura